

BERMEO. Euskerazko liburu bi aurkeztuko dabez gaur, 12:00etan



IRATXE ASTUY
Jolasean ibili eta gero, uriko eskola umeek euskerearen aldeko kalejirea egingo dabe, 19:30etan.

Euskera Eguneko ekintzak eskoletara eroango dabez

Eskola umeen adinaren arabera bananduko dabez gaurko ekitaldiak

Iratxe Astuy |

Zemendiaren 28tik hasita, Euskerearen Astea egiten dabil, Bermeon. Joan dan domekarako be, hainbat ekintza egiteko izan ziran Lameran; baina, zoritxarrez, egun horretan bota eban euriagaz, ume gitxi animau zan kalera urteten. Domekako kantu bazkarian parte hartu eben bermeotarrek, barritz, majo igaro ei eben eguna.

Dana dala, berez, Euskerearen Eguna gaur ospatuko da, eta asteongo ekintza nagusiak be, gaur egitekotan itzi dabez. Abenduaren 3ko ospakizunak antolatzerako orduan, Udaleko Euskera Zerbitzuko, Kultura Sailako, Musika Eskolako eta Euskeraz Berbetan taldeko ordezkariak ez eze, BBKren haur eskola, Eleizalde ikastola eta Karmeldar ikastetxeeko lagunek be alkarregaz bat egin dabe.

Euskerearen jaia goizez girotuz joango da, herriko ikastetxeetan. Izan be, ikastetxe bakoetan, eskola umeak egiteko ekintza bereziak gertau dabez. Horreez ganera, liburu biren aurkezpena egingo dabe, 12:00etan, udaletxeeko areto nagusian. Liburu horreen tituluak dira: *Euskera kresaltsua, aditza eta fonetika* eta *Bermeoko berba eta esaldi kresaltsuak*.

Arratsalderako aurreikusita dagoen ekitaldiak guneetan bananduko dabez. Holan, zortzi urtera bitarteko umeek Azkona pailazoakaz jolasean ibilteko aukerea eukiko dabe, Artza udal frontoian. Pailazoan saioa 15:00etan hasiko da.

EUSKERA EGUNA

GAURKO EKITALDIAK

Goizean: Herriko ikastetxeetan, eskola umeakaz egiteko ekintza bereziak gertau dabez Euskerearen Egunerako.

12:00etan: *Euskera kresaltsua, aditza eta fonetika* eta *Bermeoko berba eta esaldi kresaltsuak* liburuaren aurkezpena, udaletxeeko areto nagusian.

Arratsaldean: Neska-mutikoen adinaren arabera izango dira ikusizunak, hainbat gunetan...

15:00etan: Azkona pailazoak, Artza frontoian. (8 eta 12 urte bitarteko umeentzat).

15:15ean: Txan Magoa, Karmeldar ikastetxeeko areto nagusian. (8 eta 12 urtera bitarteko neskato-mutikoentzat).

15:15ean: Euskal jokoak, Taraska enparantzan. (12 eta 16 urteko gaztetxoentzat. Euria balitz, Herri ikastetxeeko gimnasia aldaturako litzateke jolasgunea).

19:30ean: Juan Karlos Goienetxe herriko alkateak euskerearen alde berba batzuk esango dauz, udaletxeeko balkoitik. Ondoren, Goiko plazan batzen dan jendeagaz kalejirea egingo da, Lameraraino.

Beste alde batetik, Txan Magoa agertuko da, Karmeldar ikastetxeeko areto nagusian, 15:15etatik aurrera. Txan Magoak 8 eta 12 urte bitarteko neskato-mutikoentzako eskainiko dau bere saioa. Taraska enparantza 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzako jokogunea izango da. Euskal jokoakaz olgetako aukerea izango da, bertan, 15:15etatik aurrera. Dana dala, euria egiten jarraitzen badau, joko gunea herri eskolako gimnasia eroango dabe.

Euskera Eguneko kalejirea

Euskera Eguneko jaiaren programazinoa alkatearen agurragaz eta kalejireagaz jarraituko dau. Juan Karlos Goienetxea alkateak euskerearen alde berba batzuk esango dauz, Udaletxeko balkoitik, 19:30ean. Ostean, kalejira alaitua egiten hasiko da jendea, Goiko plaza-rtik urtenda Lameraraino.

Abenduaren 3ko ospakizunak film laburren emonaldiaz amaituko dira. Izan be, euskerazko hiru pelikula labur bata bestearen atzetik emongo dabez, Nestor Basterretxea kultura aretoan. Zine emonaldia 20:30ean hasiko da. Euskera Astea hilaren 5ean amaituko da.

GERNIKA-LUMO. Eguraldi txarrak eragin dau

Aurreko asteetan baino jende gitxiago ibili zan atzoko merkatu plazan

IA |

Gernika-Lumoko atzoko merkatu plazan jende gitxi ibili zan. Aurreko asteetan baino askoz be jende gitxiago. Izan be, egin eban eguraldi euritsuagaz, inguruko herrietako bizilagun gitxi animau zan Gernikako plazara joateko autobusa edo trena hartzen.

Baserritarren aldetik be, batzuek huts egin eutsen atzoko plazeari. «Edadeko jendea da eta. Holako eguraldia egiten dauen bakoetan, etxe barrutik urten be ez dabe egiten», azaldu eban Gernika-Lumoko merkatu plazara, astelehenero, joaten dan baserritar batek.

Atzoko plazan saltzeko ipini ebezan produktuen ar-

tean, barriro be, karakolak agertu ziran. Karakol kiloaren salneurriak 9 euroan jarraitzen dau. Aza burua 1,20 euroan saldu zan, atzo; eta azenario txortea, 80 zentimoan.

Indaba kiloa 6 eta 8 euro bitartean emoten ebilen, atzoko merkatu plazan. Karuena bertokoa da; eta zuria, merkeena. Bien artean, indaba baltza dago. Gernikakoa-gaz batera, polito saltzen da, astero, indaba baltza.

Kipula dozena 5 euroan saldu eben baserritarrek, eta letxuga burua, 75 zentimoan. Tomate kiloa, bestalde, 3,75 eta 3,25 euro bitartean dabil. Frutuen artean, gabon madariak nagusi dira. Gabon madarien kiloa 1,80 euroan ipini eben, asteen.

AGENDA

BERMEO

Konektatu zaitez: Eusko Jaurlaritzak Konektatu zaitez ikasgela ibiltaria ekarriko dau Bermeora, gaur. Goizean, 9:30etatik 13:00ak arte zabalik egongo da; eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara arte.

GERNIKA-LUMO

Arteskolea: Uriko Arteskolako lagunek erakusketea zabaldu dabe, Kultur Etxean. Taldearen kideen beharrak hile honetan ikusgai egongo dira. Horrez gan, taldearen ganeko liburua be, atara dabe.

LABURREAN

BERMEO

Naiara Munitizek irabazi dau Txo Hiesa alkarteak aurton antolatutako marrazki lehiaketean

Bermeoko Txo Hiesa alkarteeko lagunek aurton antolatu daben marrazki lehiaketearan irabazleen izenak jakin arazo ebezan, abenduaren 1eko ospakizunen barruan. Nagusien taldean, argazkian agertzen dan Naiara Munitizek irabazi eban lehenengoko saria, alboan dauka saritutako marrazkia. Munitizek turismo nekazaritza etxe baten astegoierna igarotzeko bi lagunentzako txartela irabazi eban. Umeen taldean, bestalde, Itxaso Arketa izan zan irabazlea. Bere atzetik, Lexuri Markina, Olaia Alzola, Estitxu Palomares eta Julen Atela geratu ziran. Lehenengo biek 150 euroko txartel bana eskuratu dabe, uriko denda baten erropak erosteko. Besteei, eskolarako materiala emon deutesie.



IRATXE ASTUY
Naiara Munitizek irabazi eban nagusien marrazki lehiaketean.